

# Zinexit

Giza Eskubideen 10. Zinema Erakustaldia
10ª Muestra de Cine y Derechos Humanos



## 2019

**BILBAO**
Azaroak 25-29 Noviembre

**BARAKALDO**
Azaroak 20 Noviembre



**BASAURI**
Abenduak 4 Diciembre

**VITORIA-GASTEIZ**
Azaroak 29 Noviembre

---

www.zinexit.net




URTE AÑOS

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



# Zinexit




**Giza Eskubideen**
**10. Zinema Erakustaldia**

---

10ª Muestra de Cine
y Derechos Humanos

---

**BILBAO**
Azaroak 25-29 Noviembre

**BARAKALDO**
Azaroak 20 Noviembre

**BASAURI**
Abenduak 4 Diciembre

**VITORIA-GASTEIZ**
Azaroak 29 Noviembre

Aurten ospakizunetan gaude. Zinexit Topaketan aurreratu genuen bezala, aurten Zinexit, Zinema eta Giza Eskubideen Erakustaldiak bere bizitzako lehen 10 urteak ospatuko ditu. Denbora honetan guztian, zuekin batera hazten eta sortzen joan gara. Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 4. mailara bitarteko 7.000 haur baino gehiago igaro dira Zinexit Eskolatik; hainbat erakunderen aliantzak eta lankidetzak bilatu ditugu, hala nola Amnesty International, CEAR Euskadi edo Save the Children, bai eta lagina hedatu dugun udalerri batzuen lankidetzak ere: Barakaldo, Basauri, Gasteiz. Bilboko Udalarekin ahaleginak batu ditugu Zinexit bere BOSA! Programarekin bat eginez, aniztasunaren alde eta diskriminazioaren aurka. Iaztik, zinema klasikoko atal bat dugu, zinemako “bitxi” handien bidez gozatzeko eta hausnartzeko aukera eskainiz. Eta klasikoaren balioarekin batera, Zinexitek ere jakin izan du garai berrietara egokitzen, eta webgune propio batez gain, www.zinexit.net, aurten sare sozialetarako jauzia eman dugu, eta Facebook, Instagram eta Twitterren aurki dezakezu jada.

Ikusten duzuenez, 10 urteko lana eta ahalegin partekatua izan dira, eta horietan hazten eta zuengana hurbiltzen saiatu gara, gaur egun giza eskubideek dituzten erronka handiei buruzko eztabaida kritikoak eta hausnarketa sakonak sustatzeko asmoz, eta hori guztia filmek eta ondorengo eztabaidek pizten dizkiguten emozioen bidez. Eta horrela jarraitu nahi dugu, hazten eta ekarpenak egiten, eta, horretarako, zuen fideltasunarekin kontatzen jarraitu behar dugu. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkizuegu 10 urte hauetan gurekin egon izanagatik. Milaka izan zarete Azkuna Zentroko Golem zinema-aretoetatik pasa zaretenak Zinexit deialdira, zuei guztioi MILA ESKER.

Azaroaren 25etik 29ra zuen zain egongo gara, beti bezala Bilboko Azkuna Zentroko Golem zinemetan, eta baita Basaurin, Barakaldon eta Gasteizen ere.

*Este año estamos de celebración. Tal y como adelantábamos en el Zinexit Topaketa, este año ZINEXIT, Muestra de Cine y Derechos Humanos celebra sus 10 primeros años de vida. Durante todo este tiempo hemos ido creciendo y creando junto a todas vosotras y vosotros. Hemos incorporado el Zinexit Eskola por el que han pasado más de 7.000 niños y niñas de 1º a 4º de primaria; hemos buscado alianzas y colaboraciones de diferentes organizaciones como Amnistía Internacional, CEAR Euskadi o Save the Children y también de diferentes municipios a los que hemos llevado extensiones de la muestra: Barakaldo, Basauri, Vitoria-Gasteiz. Con el Ayuntamiento de Bilbao hemos unido esfuerzos haciendo coincidir el Zinexit con su programa BOSA! por la diversidad y contra la discriminación. Desde el año pasado, contamos con una sección de cine clásico ofreciendo la oportunidad de disfrutar y reflexionar a través de grandes joyas del cine. Y junto al valor de lo clásico, Zinexit también ha sabido adaptarse a los nuevos tiempos y además de una página web propia, www.zinexit.net, este año hemos dado el salto a las redes sociales y ya puedes encontrarnos en Facebook, Instagram y Twitter.*

*Como veis, han sido 10 años de trabajo y esfuerzo compartido en los que hemos intentado crecer y acercarnos a todas vosotras y vosotros, buscando promover debates críticos y reflexiones profundas en torno a los grandes retos que afrontan hoy los derechos humanos, y todo ello a través de las emociones que nos despiertan las películas y los debates posteriores. Y queremos seguir así, creciendo y aportando, para lo cual necesitamos seguir contando con vuestra fidelidad. Por eso, queremos daros las gracias por acompañarnos estos 10 años. Han sido, habéis sido, miles de personas las que habéis pasado por las salas de los cines Golem del Azkuna Zentroa acudiendo a la convocatoria del Zinexit, a todos vosotros y vosotras GRACIAS.*

*Os esperamos entre los días 25 a 29 de noviembre, como siempre en los Cines Golem del Azkuna Zentroa de Bilbao, y también en Basauri, Barakaldo y Vitoria-Gasteiz.*

**Monika Hernando Porres**

Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaria, Lehendakaritza.
*Directora de Víctimas y Derechos Humanos, Lehendakaritza.*

# Zinexit

## **Programazioa** / Programación

### **BILBAO. GOLEM AZKUNA ZENTROA.** Sala 1. Aretoa

| **FILMA/** PELÍCULA | **EGUNA/** DÍA | **ORDUA/** HORA |
|---|---|---|
| EL CUARTO REINO | Astelehena 25 Lunes | 19:30 |
| MIDNIGHT TRAVELER | Asteartea 26 Martes | 19:30 |
| CON EL NOMBRE DE TANIA | Asteazkena 27 Miércoles | 19:30 |
| AWLAD. Hesiak Gainditu | Osteguna 28 Jueves | 19:30 |
| FALSO CULPABLE | Ostirala 29 Viernes | 19:30 |

### **ZABALKUNTZA UDALETARA /** EXTENSIONES MUNICIPALES

| **UDALA/** MUNICIPIO | **FILMA/** PELÍCULA | **EGUNA/** DÍA | **TOKIA/** LUGAR | **ORDUA/** HORA |
|---|---|---|---|---|
| BARAKALDO | CON EL NOMBRE DE TANIA | Azaroak 20 Noviembre | Clara Campoamor Auzo Etxea | 18:30 |
| BASAURI | MIDNIGHT TRAVELER | Abenduak 4 Diciembre | Social Antzokia | 19:00 |
| VITORIA-GASTEIZ | AWLAD. Hesiak Gainditu | Azaroak 29 Noviembre | Cines Florida Zinemak | 19:30 |

### **ZINEXIT ESKOLA. GOLEM AZKUNA ZENTROA**

| **FILMA/** PELÍCULA | **EGUNA/** DÍA | **ORDUA/** HORA |
|---|---|---|
| PLOEY, Ez duzu inoiz bakarrik hegan egingo | Asteartea 26 Martes | 10:00 |

### **BOSA! PROGRAMA. GOLEM AZKUNA ZENTROA**

| **FILMA/** PELÍCULA | **EGUNA/** DÍA | **ORDUA/** HORA |
|---|---|---|
| Selección de cortometrajes | Asteazkena 27 Miércoles | 9:00 / 11:00 |
| Film laburren hautaketa | Osteguna 28 Jueves | 10:00 |

**Astelehena 25** Lunes

# El Cuarto Reino

**España. 2019. 82 min. VOSE. Dokumentala**



**Zuzendariak/***Directores:* Adán Aliaga, Àlex Lora.
**Ekoizketa/***Producción:* Jaibo Films, Isabel Feliu Arquiola Pc & Àlex Lora Pc.
**Gidoia/***Guión:* Adán Aliaga, Àlex Lora.
**Argazkia/***Fotografía:* Adán Aliaga, Àlex Lora.
**Soinua/***Sonido:* Adán Aliaga, Àlex Lora.
**Muntaia/***Montaje:* Adán Aliaga, Àlex Lora, Sergi Dies.
**Grafikoak/***Gráficos:* María Cano.

"El Cuarto Reino"k New Yorkeko auzo bateko erkidego marjinal bateko egunerokotasuna erakusten du. "Erreinu" oso berezia da eta, bertan, bai zailtasun-egoeran bizi diren herritar estatubatuarrek bai legez kontrako etorkinek etsipena bizi dute, aukeren herrialdean agindutako errealitatea benetan oso bestelakoa delako.

DOCUMENTA MADRID. Film Dokumental Nazional Onenaren Saria eta Filmin Saria.

ATLANTA FILM FESTIVAL. Film Luze Dokumental Onenaren Saria.

AMSTERDAM FILM FESTIVAL. Van Gogh Saria.

**Adán Aliaga** (Alacant, 1969). Ikus-entzunezko ikasketak egin zituen Alacanteko Unibertsitatean, eta zinema-zuzendaritza Bartzelonako CECCn. 2006an, lehen filma estreinatu zuen zuzendarilanetan: "La casa de mi abuela"; film horrekin, nazioarteko hainbat sari jaso zituen. 2018an, Goyarako izendapena jaso zuen, film labur dokumental onenagatik, "The fourth Kingdom" lanaren ondorioz; hura Zinexiten estreinatzen dugun filmaren aurrekoa da.

*"El Cuarto Reino" refleja la vida cotidiana en una comunidad marginal en un barrio de Nueva York. Un "reino" muy particular en el que, tanto ciudadanos y ciudadanas estadounidenses en dificultades como personas inmigrantes ilegales, comparten la decepción de una realidad muy diferente a la prometida en el país de las oportunidades.*

*DOCUMENTA MADRID. Premio Mejor Película Documental Nacional y Premio Filmin.*

*ATLANTA FILM FESTIVAL. Premio Mejor Largometraje Documental.*

*AMSTERDAM FILM FESTIVAL. Premio Van Gogh.*

***Adán Aliaga** (Alicante, 1969). Realiza estudios audiovisuales en la Universidad de Alicante y dirección cinematográfica en el CECC de Barcelona. En 2006 estrena su primera película como director, "La casa de mi abuela", con la que obtiene numerosos premios internacionales. En 2018 es nominado al Goya al mejor cortometraje documental con "The fourth Kingdom", antecesor de la película que estrenamos en Zinexit.*

## Solasaldia

**Adán Aliaga** *(zuzendaria)*

## *Coloquio*

**Adán Aliaga** *(director)*

**Asteartea 26** Martes

# Midnight traveler



## USA-Qatar-Canadá-Reino Unido. 2019. 87 min. VOSE. Dokumentala

**Zuzendaria/***Director:* Hassan Fazili.
**Ekoizketa/***Producción:* Emelie Mahdavian, Su Kim
**Gidoia/***Guión:* Emelie Mahdavian.
**Kamera/***Cámara:* Fatima Hussaini, Hassan Fazili, Nargis Fazili, Zahra Fazili .
**Soinua/***Sonido:* Daniel Timmons.
**Muntaia/**Montaje: Emelie Mahdavian.
**Musika/**Música: Gretchen Jude.

Talibanek Hassan Fazili zuzendari afganiarraren buruaren truke saria eskaini dute eta, ondorioz, herrialdetik alde egin behar izan du emaztearekin eta alaba biekin.

Haren bidaiaren bidez, filmak zuzenean erakusten ditu babeslekua bilatzen duten errefuxiatuek aurrez aurre dituzten arriskuak, bai eta ihes egiten duen familia bateko kideek partekatzen duten maitasuna ere. Zenbait urtez segurtasuna bilatzen eginiko bidaia horretan, familiak bere egoera kontrolatzeko zeukan baliabide bakarrari heldu zion: kameradun mugikorrak.

Familia guztiak grabatu zuen film autobiografiko hori, zinema-lekukotzaren adibide zoragarria; hartan, barru-barruko erretratu bihozbera baten bidez, Balkanetako ibilbideko benetako ihesaldi baten biziraupena erakusten da.

DOCAVIV FILM FESTIVAL, Nazioarteko Film Onena.

DOCUMENTARY EDGE FESTIVAL, Nazioarteko Film Onena.

DOXA Documentary Film Festival, Dokumental Onena

BERLINGO JAIALDIA, Epaimahai Ekumenikoaren saria.

SAN FRANCISCO FILM FESTIVAL, Dokumental onena.

SUNDANCE FILM FESTIVAL, Epaimahaiaren sari berezia Dokumental Onenari.

*Cuando los talibanes ponen una recompensa por la cabeza del director afgano Hassan Fazili, este se ve obligado a huir del país con su esposa y sus dos hijas.*

*Capturando su incierto viaje, la película muestra, de primera mano, los peligros que enfrentan las personas refugiadas que buscan asilo así como el amor compartido entre los y las miembros de una familia que huye. En el transcurso de este viaje de varios años en busca de seguridad, la familia se aferró al único medio que tenía para ejercer control sobre su situación: sus móviles con cámara.*

*Toda la familia filmó esta película autobiográfica, un apasionante ejemplo de cine-testimonio que muestra, en un retrato íntimo y humano, su supervivencia en una fuga real a lo largo de la ruta de los Balcanes.*

*DOCAVIV FILM FESTIVAL, Mejor película internacional.*

*DOCUMENTARY EDGE FESTIVAL, Mejor documental internacional.*

*DOXA Documentary Film Festival, Mejor documental.*

*FESTIVAL DE BERLÍN, Premio del Jurado Ecuménico.*

*SAN FRANCISCO FILM FESTIVAL, Mejor documental.*

*SUNDANCE FILM FESTIVAL, Premio especial del Jurado Mejor Documental.*

## Solasaldia

**Jesús Álvarez** *(Amnesty International)*

## *Coloquio*

**Jesús Álvarez** *(Amnistía Internacional)*

**Asteazkena 27** Miércoles

# Con el nombre de Tania



**Bélgica, 2019. 89 min. VO. Dokumentala-Fikzioa.**

**Zuzendariak/***Directoras:* Mary Jiménez, Bénédicte Liénard.

**Ekoizketa/***Producción:* Hanne Phlypo.

**Argazkia/***Fotografía:* Virginie Surdej.

**Soinua/***Sonido:* Kwinten Van Laethem.

**Muntaia/***Montaje:* Marie-Hélène Dozo.

**Musika /***Música:* Gretchen Jude.

**Aktoreak/***Intérpretes:* Tanit Lidia Coquinche Cenepo, Ismael Vasquez Colchado, Fiorella J. Aguila, Yossimar Vietto Omnia.

Film honek –Pucallpa-n, Iquitos-en, Ucayali ibaian eta Madre de Dios-en grabatuta– Taniaren historia erakusten du; Tania gazte peruarra da, pertsonen salerosketatik eta behartutako prostituziotik bizirik irten dena. Fikzioaren eta dokumentalaren nahasketa bat da; barru-barruko begirada eskaintzen digu, eta begirada hunkigarria emakume horiek bizi izandako lazgarrikeriaren aurrean, bai eta beren identitatearen galeraren aurrean ere.

“Dagoeneko ez da nire gorputza. Dagoeneko ez naiz ni”.

“Jiménezek eta Liénardek ez dena dute oinarri, dagoeneko ez dena, galdu dena, lortu ezin dena (…)

Denborak ez du garrantzirik. Ez eta gizaki batek ere prostituzio-zirkulu batean. Tania gazteak aipatzen duen ezabatze hori filmaren erdigunean dago. Garrantzitsuena dena ez da begi-bistakoa, kanpoan dago”. (Nadin Mai, Slow Cinema).

BERLINGO ZINEMA-JAIALDIA, Dokumental Onenaren izendapena.

AGADIR INTERNATIONAL FILM FESTIVAL, Epaimahaiaren Saria.

RAINDANCE INTERNATIONAL FILM FESTIVAL, Nazioarteko Film Onenaren Saria.

GHENT VIEWPOINT DOCUMENTAL FF, Dokumental hibridorik onena.

*Esta película –filmada en localizaciones de Pucallpa, Iquitos, río Ucayali y Madre de Dios– recrea la historia de Tania, una joven peruana superviviente de la trata de personas y de la prostitución forzada. Híbrido entre ficción y documental, nos ofrece una mirada íntima y conmovedora al horror vivido por estas mujeres, así como a la pérdida de su identidad.*

*“Ya no es mi cuerpo. Ya no soy yo”.*

*“Jiménez y Liénard se centran en lo que no es, en lo que ya no es, en lo que se ha perdido, en lo que no se puede alcanzar (…)*

*El tiempo no importa. Ni tampoco un ser humano en un círculo de prostitución. Este borrado del que habla Tania, la joven, está en el corazón de la película. Lo que importa no es visible, está fuera.” (Nadin Mai, Slow Cinema).*

*FESTIVAL DE CINE DE BERLÍN, Nominada a Mejor Documental.*

*AGADIR INTERNATIONAL FILM FESTIVAL, Premio del Jurado.*

*RAINDANCE INTERNATIONAL FILM FESTIVAL, Premio Mejor película internacional.*

*GHENT VIEWPOINT DOCUMENTAL FF, Mejor Documental híbrido.*

## Solasaldia

**Ane Garay** *(CEAR Euskadi)*

## *Coloquio*

**Ane Garay** *(CEAR Euskadi)*

**Osteguna 28** Jueves

# AWLAD. Hesiak Gainditu




**Euskadi, 2019. 65 min. VOSE. Dokumentala**

**Zuzendaritza/**_Dirección:_ Cosimo Caridi, Ane Irazabal Elkorobarrutia.

**Argazkia/**_Fotografía_: Rodrigo Hernández Tejero, Cosimo Caridi.

**Gidoia/**_Guión:_ Cosimo Caridi, Simone Mele, Ane Irazabal Elkorobarrutia.

**Muntaia/**_Edición_: Simone Mele.

**Jatorrizko Musika/**_Música original:_ Gianluca Nigro.

**Ekoizketa/**_Producción:_ Muzungu Producciones.

AWLAD ("Umeak" arabieraz) dokumentala aurkezten dugu; erabateko estreinaldia Zinexiten, gure 10. urteurrena ospatzeko.

Mohamad, Aya, Hadi eta Muzhda lau ume errefuxiatu dira; beren jaioterriko indarkeria atzean utzi dute. Haiek guztiek ihesaldiaren lau etapa erakusten dituzte. Ihesaldiaren helburua da leku seguru batera iritsi eta bertan beren bizitzen norabideari ekin ahal izatea. Lau ume horiek beren haurtzaroa aldarrikatzen dute, baina, batik bat, eskolara joateko duten eskubidea. Protagonistak normaltasunera itzultzeko eta gerran galdutako haurtzaroa berreraikitzeko borrokatuko dira.

Ane Irazabal (Arrasate, Gipuzkoa) Palestinan lanean hasi zen eta, 2011z geroztik, udaberri arabiarrekin Egipton, Tunezen, Libanon, Jordanian… Azken urteotan, errefuxiatuen eta Ekialde Hurbileko, Afrikako eta Europako migrazio-fenomenoen dramaren segimendua egin du.

Cosimo Caridik Il Fatto Quotidianorako, Nemo - Nessuno esclusorentzat idazten du RAI 2n. Bere txostenak BBCk, Al Jazeerak, Telesur-ek, RSIk, Internazionale-k argitaratu dituzte. Hamar urte baino gehiago izan da Ekialde Ertaineko gatazkak jarraitzen, eta azken urteotako krisi nagusien berri eman du, besteak beste, Afrikako Adarra eta Filipinak.

*Presentamos el documental AWLAD ("Niños", en árabe) un estreno absoluto en Zinexit para celebrar nuestro 10º cumpleaños.*

*Mohamad, Aya, Hadi y Muzhda son cuatro niños refugiados que han dejado atrás la violencia de sus países de origen. Todos ellos representan cuatro etapas de una huida que tiene como objetivo llegar a un lugar seguro donde retomar el rumbo de sus vidas. Se trata de la historia de cuatro niños que reivindican su niñez, pero, sobre todo, su derecho a ir a la escuela. Los protagonistas lucharán por recobrar la normalidad y reconstruir una infancia perdida en la guerra.*

*Ane Irazabal (Arrasate, Gipuzkoa) comenzó trabajando en Palestina y, a partir del 2011, con las primaveras árabes en Egipto, Túnez, Líbano, Jordania... En los últimos años ha hecho seguimiento del drama de los refugiados y de los fenómenos migratorios en Oriente Próximo, África y Europa.*

*Cosimo Caridi escribe para Il Fatto Quotidiano y filma para Nemo - Nessuno escluso en la RAI 2. Sus informes han sido publicados por la BBC, Al Jazeera, Telesur, RSI, Internazionale. Durante más de diez años ha seguido los conflictos en Oriente Medio y ha cubierto las principales crisis de los últimos años, desde el Cuerno de África hasta Filipinas.*

## Solasaldia

**Ane Irazabal.** *Filmaren zuzendarikidea*

## *Coloquio*

**Ane Irazabal.** *Codirectora de la película*

**Ostirala 29** Viernes

# ZINEXIT CLASSIC
# Falso culpable



**USA, 1956. 105 min. VOSE. Fikzioa.**

**Jatorrizko izenburua**/*Título original:* The wrong man.
**Zuzendaritza/***Dirección:* Alfred Hitchcock.
**Gidoia/***Guion:* Maxwell Anderson, Angus MacPhail.
**Musika/***Música:* Bernard Herrmann.
**Argazkia/***Fotografía*: Robert Burks.
**Muntaia/***Montaje:* George Tomasini.
**Aktoreak/***Reparto:* Henry Fonda, Vera Miles, Anthony Quayle, Harold J. Stone, Charles Cooper, John Heldabrand, Esther Minciotti, Doreen Lang, Laurinda Barrett, Norma Connolly, Nehemiah Persoff, Kippy Campbell, Robert Essen, Richard Robbins, Dayton Lummis, Peggy Webber.

Hitchcock-ek Warner-entzat zuzendu zuen azken filma da, eta bere elkarlan bakarra Henry Fondarekin (hurrengo urtean aktoreak Oscar Saria lortu zuen, "Twelve Andry Men" lanagatik).

Beharbada zinemagile britainiarraren film ilunena da; izan ere, ez du umorerik eta akats judizial baten benetako istorioan oinarrituta dago. Bertan, gizon bat posta-bulegoan lapurtzeagatik salatu zuten enplegatuek, erratuta; gizon zintzoa, zoriontsua eta ezkondua zen, baina zenbait estutasun ekonomiko bizi zituen.

Drama errealista, erdi dokumentala eta, itxuraz, ez oso "hitchcockianoa", suspensearen teknikatik urruntzen baita. Robert Bresson-ek eta Jean Luc Godard-ek beti miretsi izan dute eta, urteak igaro ahala, zinemagile ingelesaren obra handietako bat dela esaten da (Martin Scorsese-k gehien atsegin duen lanetako bat dela dio).

"Moral-ikasbidea baino gehiago da; The Wrong Man-en minutu bakoitza eszenaratzearen ikasbide bat da. (…) Horregatik miresten dugu Balestrero (Fonda) auzitegietara daraman kamioi zelularra zubi eseki batetik igaro den uneko planoa, Robert Burks-ek argazki bidez hain ongi atera duena: silueta txikia, beltza, burdinazko habe erraldoien azpian dardartia, eta fantasmen herrialdera iristen den Nosferaturen orga gogora dakarrena". (Jean Luc Godard).

*Última película dirigida por Hitchcock para la Warner y su única colaboración con Henry Fonda (actor que el año siguiente conseguiría el Oscar por "Doce hombres sin piedad").*

*Posiblemente esta sea la película más sombría del cineasta británico, pues no contiene humor y está basada en la historia real de un error judicial, en el que un hombre honrado, felizmente casado y con ciertos apuros económicos, fue acusado de robar en una oficina de correos, tras haber sido confundido por los empleados.*

*Drama realista, semi documental y en apariencia poco "hitchcockiano" al apartarse de la técnica del suspense. Robert Bresson y Jean Luc Godard la admiraron siempre y, con el paso de los años, se ha colocado como una de las grandes obras del cineasta inglés (Martin Scorsese la incluye entre sus favoritas).*

*"Más aún que una lección de moral, cada minuto de The Wrong Man es una lección de puesta en escena. (…) Admiramos por ello el plano, notablemente fotografiado por Robert Burks, en que el camión celular que conduce a Balestrero (Fonda) al tribunal pasa sobre un puente colgante: pequeña silueta negra, traqueteante bajo los enormes pilares de hierro, y que evoca extrañamente la carreta de Nosferatu que llega al país de los fantasmas." (Jean Luc Godard).*

# Zabalkuntza Udalerrietara

Erakustaldi honen asmoetako bat da euskal udalerrietara zabaltzea eta urtero programatutako filmen inguruko eztabaidak eskaintzea. Edizio honetan, bidaia hedatzaile horrekin jarraitzen dugu, eta hiru udalerriren parte-hartzea dugu.

Bertako herritarrek zuzenean izango dute proiekzio interesgarri batera eta ondoko eztabaidara bertaratzeko aukera; sarrera libre izango dute, harik eta pertsona-kopuru mugatua bete arte, eta beren herrian bertan izango da.

# *Extensiones municipales*

*Una de las intenciones de esta Muestra es extenderse por los municipios vascos ofreciendo debates en torno a las películas programadas cada año. En esta edición seguimos con este viaje divulgador y contamos con la participación de tres municipios.*

*Sus ciudadanas y ciudadanos tendrán directamente la oportunidad de asistir a una interesante proyección y a su posterior debate, con entrada libre hasta completar el aforo y en su propio pueblo.*




CON EL NOMBRE DE TANIA

## **20**/11
## Barakaldo

**Tokia**/*Lugar*: **Clara Campoamor Auzo Etxea**
**Eguna**/*Día:* **Asteartea 20** *Martes* **Azaroa**/*Noviembre*
**Ordua**/*Hora*: **18:30**
**Solasaldia**/*Coloquio:* **ONGs y la trata de personas**




AWLAD

## **29**/11
## Vitoria-Gasteiz

**Tokia**/*Lugar*: **Cines Florida Zinemak**
**Eguna**/*Día:* **Ostirala 29** *Viernes* **Azaroa**/*Noviembre*
**Ordua**/*Hora*: **19:30**
**Solasaldia**/*Coloquio:* **Ane Irazabal**




MIDNIGHT TRAVELER

## **04**/12
## Basauri

**Tokia**/*Lugar*: **Social Antzokia**
**Eguna**/*Día:* **Asteazkena 28** *Miercoles* **Azaroa**/*Noviembre*
**Ordua**/*Hora*: **19:00**
**Solasaldia**/*Coloquio:* **Amnesty International**

# Eskola

Aurten ere, ZINEXIT DLHko eskola-umeei zabaldu zaie, irakaskuntzan giza eskubideak lantzeko.

Edizio honetan, PLOEY, EZ DUZU INOIZ BAKARRIK HEGAN EGINGO animazioko film luzea aukeratu dugu; izan ere, 2019an gure 10. Urteurrena ospatzen dugu, “Pertsonek zoriontsu izateko duten eskubidea” lemapean, eta haurtzaroa gizaki ororen bizitzan garai zoriontsua da edo izan beharko luke.

Nahi horretara eta haren errealitatera hurbiltzeko, material didaktiko berezia prestatu dugu ikasle eta irakasleentzat eskola-saio horretan.

*Un curso más, ZINEXIT se extiende a los y las escolares de EPO para trabajar los derechos humanos en la enseñanza.*

*En esta edición hemos elegido el largometraje de animación PLOEY, NUNCA VOLARÁS SOLO, porque en 2019 celebramos nuestro 10º Aniversario bajo el lema “El derecho de las personas a la felicidad”, y la infancia es o debería ser una época feliz en la vida de todo ser humano.*

*Para acercarnos a este deseo y a su realidad, hemos elaborado un material didáctico específico para el alumnado y el profesorado en esta sesión escolar.*

## PLOEY, Ez duzu inoiz bakarrik hegan egingo

**Islandia, 2018. 83 min. Animazioa**

**Jatorrizko izenburua**/*Título original:* Puloi: Asla Yalnz Uçmayacaksn
**Zuzendaria**/*Director:* Árni Ásgeirsson
**Gidoia**/*Guión:* Fridrik Erlingsson
**Ekoizlea**/*Productor:* Ives Agemans, Hilmar Sigurdsson
**Musika**/*Música:* Atli Örvarsson



Familia osoarentzako abenturen animazio hunkigarri horrek urre-txirri baten istorioa kontatzen digu; urre-txirriak arazoak ditu hegan egiteko eta, beraz, negua heltzean, ezin du familiarekin migratu klima hezeagoa duen lekuren batera.

*Esta conmovedora animación de aventuras para toda la familia cuenta la historia de un joven chorlito dorado que tiene problemas para aprender a volar, con lo cual, con la llegada del invierno no puede migrar con su familia a un lugar con un clima más cálido.*

# BOSA!

Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetza, Bizikidetza eta Jaietako Sailak IrudiBERRIA Elkartearen BOSA! programa antolatzen du ZINEXIT astean zehar. Bilboko DBHko ikastetxeetara zuzendutako Aniztasunaren alde eta Diskriminazioaren aurkako ekimen hau.

Edizio honetan, programak 6 film labur ditu euskaraz eta gaztelaniaz, eta zurrumurruen aurkako estrategian eta giza eskubideen garapenean lan egiteko material didaktikoa.

*El Área de Cooperación, Convivencia y Fiestas del Ayuntamiento de Bilbao organiza durante la semana de ZINEXIT el programa BOSA!, una iniciativa de irudiBERRIA Elkartea por la Diversidad y contra la Discriminación, dirigida a los centros escolares de ESO de Bilbao.*

*En esta edición el programa consta de 6 cortometrajes en euskera y castellano y un material didáctico específico para trabajar en la estrategia antirrumores y en el desarrollo de los derechos humanos.*

**ANTOLATZAILEA** / ORGANIZA

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**KOORDINATZAILEA** / COORDINA

irudiberria

**KOLABORATZAILEAK** / COLABORADORES

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Barakaldo
CIUDAD HIRIA

Basauri

AMNESTY INTERNATIONAL

CEA(R) EUSKADI
Euskadiko **Errefuxiatuen**
**Laguntzarako** Batzordea

**ESKERRAK** / AGRADECIMIENTOS

golem

muzungu

FILMAZPIT

JAIBOFILMS